Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Serapio Undabarrena Meabe

Gernika-Lumo, Bizkaia
(1930-2023)



Aurkibidea

Biografia



1930ean jaio zen Mendatako Elizalde auzoko Mantxuene baserrian. Aita Ibarruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoko Etxebarrieta baserrikoa zen eta ama Munitibarreko Burukukoa. 4 neba-arrebatatik hirugarrena da bera. Bizi guztian harakin lanetan aritu da. 1948an, 18 urtegaz, Gernika-Lumoko Luis harakinagaz hasi zen lanbidea ikasten. 1951n Melillako Dardrius herrira joan zen soldaduskara 16 hilabetez, horietatik 15 harakin beharretan pasa zituen. 1960an emaztearekin batera zabaldu zuen Gernika-Lumon harategia, eta bertan jardun zuten 1997ra arte. Albiz auzoko Intxurreta baserriko Pantxike Legarrarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten. Ezkontzerakoan, harategia eta etxea Gernikan erosi eta bertan bizi dira ordudanik.

Zintak

GER-002

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2009-12-02
- **Iraupena**: 145 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Mendatako eskola

- **Erref**: GER-002/002
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:05:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Eskolara joateaz gain eta etxean egin beharreko lanak egiteaz gain, pilotak egitea zen euren entretenimendua. Lau senideen artean hirugarrena da bera. Eskolara Mendatara joaten ziren, bi edifizio zituen eskolak, neskena eta mutilena.

2. Elizpean pilotan mutilak, neskak tabaka

- **Erref**: GER-002/003
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:05:21. **Bukatu**: 00:06:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Baloirik ez eta pilotekin jolasten zuten elizpean, frontoirik ere ez zegoelako. Paperean bildutako zimeldutako naboekin ere jolastu izan dute futbolean. 1962-1963 inguruan egin zen frontoia. Mutilak elizpean pilotan edo karrerak egiten, eta neskak "tabaka" ibiltzen ziren. "Kubike" neskak eta mutilak elkarrekin jolasten zuten, ezkutaketan jolastearen antzekoa omen zen.

3. Tronpa txapelketak

- **Erref**: GER-002/004
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:06:43. **Bukatu**: 00:09:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Tronpekin ere jolasten zuten, egun eskuz eginikoak dauden arren, orduan makinekin egiten zituzten. Tronpa txapelketak egiten ziren, kanpotik ere etortzen zen jendea lehiatzera, Errenteria auzoko mutil bat omen zen oso noa tronpan. Parte-hartzaile denak mutilak izaten ziren, neskak begira zituztelarik. Sekulako ikusmira sortzen zuen, plaza goraino beteta egoten zen. Elurrez beteta bazegoen frontoia edo plaza, palarekin kendu, zerrategitik zerrautsa ekarri eta horrela lehortzen zuten.

4. Frontoi zaharretik Jai Alaira, ikusmira handia eta apustu ugari

- **Erref**: GER-002/005
- **Iraupena**: 0:04:27. **Hasi**: 00:09:28. **Bukatu**: 00:13:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Frontoi zaharra "Bar frontón" zenaren aurrean zegoen. Urriko azken astelehenean Retegi I eta Gorostiza aritu izan ohi ziren pilotan, jendetza biltzen zen. Onaindia gernikarra ere aritzen zen, oso ona omen zen. Diru asko jokatzen zen orduan, batez ere frontoi berrian, Jai Alaien. Apirila eta Urria artean larunbat, igande eta astelehenero topera egoten zen Jai Alai, zestalariak ikusteko, neguan zestalari onek Miamira-eta alde egiten zuten. Sarrerak zortzi duro inguru balio izaten zuen, eta emakumeek ere bazuten ohitura frontoira joateko.

5. Gernika eta Durangoko frontoiarekiko zaletasuna

- **Erref**: GER-002/006
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:13:55. **Bukatu**: 00:17:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Diaspora » Lana diasporan » Pilotariak eta erraketistak diasporan

Laburpena:
Txurruka pilotari mutrikuarra lagun handia du, egun Ameriketan bizi da. Pilotari euskaldun batzuk Ameriketara pilotan jokatzera joan eta bertan geratu ziren, asko gaur arte. Durangarrak ere abilak ziren pilotan, behin erronka jo zieten gernikarrei, eta dirutza jokatu zuen jendeak, baina azken momentuan atzera egin zuten durangarrek. Gernikan garai hartan aberastasun handia zegoen, jendeak dirutzak jokatzen zituen frontoian. Bilbon bizi zen galiziar bat ere bazen, apustuzale amorratua.

6. Durango, Markina eta Miarritzera frontoira

- **Erref**: GER-002/007
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:19:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Durangora eta Markinara ere joaten ziren frontoira, zestalarien partidak ikustera, eta askotan partida ostean bertan gelditzen ziren parrandan. Urrunago ere joan izan ziren, Miarritzera, esaterako. San Mamesa ere sarri joaten ziren futbola ikustera.

7. Idi-probak utzi eta harategira lanera

- **Erref**: GER-002/008
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:19:48. **Bukatu**: 00:22:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Idi-probatan ibilia izan da, 18 urterekin egin zituen bi proba, idiekin eta astoekin, amari esan zion ez zuela nahi gehiago egiterik. Ez zen dirurik mugitzen idi probatan. Amari esan zion harakin izan nahi zuela, Luis harakinak deitu zion eta bere harategian ikasi zituen harakin lanak. Soldadutzan bi urte igaro ostean lanera itzuli zen Luisen harategira, 1960. urtean plazan bere harategia jarri zuen arte. 67 urterekin jubilatu zen, harategia familiako inork hartu nahi ez zuenez, errege biharamun batez itxi zuen harategia.

8. Harategia itxi eta lokala errentan

- **Erref**: GER-002/009
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:22:46. **Bukatu**: 00:25:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak

Laburpena:
Harategia itxi zuenetik errentan izan du lokala. Harategiko materiala saldu, oparitu edo zakarretara bota zuen. Garai hartan Gernikan hamar harategi zeuden, eta 18 egotera ere iritsi ziren, gaur egun gutxiago daude.

9. Ganadu eta txerri tratua

- **Erref**: GER-002/010
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:25:47. **Bukatu**: 00:30:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Gernikan harakin ugari ziren garai hartan. Harategia emaztea eta bere artean atera zuten aurrera, Ajangiz, Munitibar, Ibarrangelu eta beste hamaika herritan bezeroak zituztelarik. Bezeroak hiltegira joaten ziren, bertan txahala hil, pisatu eta txartela ematen zieten, horrekin harategira joan, ordaindu eta haragia etxera eraman ahal izateko. Ganadua baserri askotan egoten zen orduan, baita txerriak ere, txerri-bodatara joan ohi zen txerriak hiltzen laguntzera baserritarrei.

10. Harategiari lotutako bizimodua

- **Erref**: GER-002/012
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:32:44. **Bukatu**: 00:36:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak

Laburpena:
Mila kilo haragi saltzen zituen astean, lau txahal, oso bezero onak ziren gernikarrak. Lapikokoa saltzen zuen gehienbat, zankarroia, hezurrak... Udan haragi gehiago saltzen zuen neguan baino, uda pasatzera etorritako kanpotarrei, eta abar. Lauretan edo bostetan jaikitzen zen egunero, eta gauetan hamarrak arte ere egiten zuen lan, emaztea, Pantxike Legarra, lehenago joaten zen etxera.

11. Zigorrak nonahi: elizan eta eskolan

- **Erref**: GER-002/013
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:36:18. **Bukatu**: 00:37:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Eskolan mutilek maisu valentziar bat izan zuten, falangista bera. Euskaraz eginez gero 20 minutu pasa behar izaten zituzten hormaren kontra. Bera eta beste bi lagun bihurriak ziren oso, apaizarekin izandako tirabira baten harira maisuak aste osoan errekreo gabe utzi zituen.

12. Elizan monagilo eta maiordomo lanetan

- **Erref**: GER-002/014
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:37:34. **Bukatu**: 00:39:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Apaiza bertakoa zen, Don Jose Gorroño, pilotan beraiekin aritzen zen. Monagilo ibili zen elizan, baita maiordomo ere, dirua batzen, apaizak gaileta batzuk ematen zizkien jateko. 15 urte ingururekin, dirua irabazten hasi zirenean, gailetak anis eta koñaketan bustita jaten zituzten lagunartean, pilotan jolastu aurretik.

13. Albaitarien bisitak hiltegira

- **Erref**: GER-002/015
- **Iraupena**: 0:05:16. **Hasi**: 00:39:55. **Bukatu**: 00:45:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Urtebete egin zuen Gernikako hiltegira joaten harakin lanak ikastera, txakur txiki bat kobratzeke. Gernikako hiltegia ixtean, inguruko denek Durangoko hiltegira joan behar izaten zuten. Goizetan albaitariak hiltegia bisitatzen zuen,

ganadua egoera onean zegoela ziurtatzeko. Behiak idiskoagana eraman beharrean, albaitariek injektatzen zieten semena.

14. Harategiko zorren kitatzea

- **Erref**: GER-002/016
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:45:11. **Bukatu**: 00:47:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
Hilabete amaieran komeriak izaten ziren askotan, bezero oso finak ziren batzuek, harategian zorretan gelditu arren dirua lortu orduko zorrak kitatzen zituztenak, eta dirua izan arren ordaintzen ez zutenak ere bazeuden, denetik zegoen.

15. Bonbardaketaren eguna, arrosarioa errezatzen eta leihotik begira

- **Erref**: GER-002/018
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:48:34. **Bukatu**: 00:52:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Zazpi urterekin hasi zen eskolan, Gernika erre eta egun gutxira. Goizeko bederatziak inguruan hasi ziren aeroplanoak pasatzen, beraiek etxe barruan amarekin arrosarioa errezatzen zeuden bitartean. Etxetik ikusten zuten nola erretzen zen Gernika. Mendatako jende asko hil zen, euren etxea ere errekisatzekoak ziren, baina azkenean libratu egin ziren.

16. Bonbardaketa ondorena eta gerraostea

- **Erref**: GER-002/019
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:52:26. **Bukatu**: 00:54:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Bonbardaketa ostean Gernikara joan zen aitarekin, txahal bat eramatera saltzeko, eta Gernikak sutan jarraitzen zuen, hildakoak omen zeuden hondakinen artean. Soldaduak plaza zaharrean jarraitzen zuten, gerraostean gerrako atxilotuek egin zuten plaza zaharra, baita Sukarrietatik Bermeora doan bidea ere.

17. Harakin Gernikan eta Melillan, soldadutzan

- **Erref**: GER-002/020
- **Iraupena**: 0:04:14. **Hasi**: 00:54:34. **Bukatu**: 00:58:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Lanbideak

Laburpena:
Zazpi urtetatik 14 urtera arte ibili zen eskolan, gero baserrian aritu zen lanean, hamazazpi urte bete arte, 17 urterekin harakin izateko ikasten hasi zelarik. 1951n joan zen soldadutzara, 16 hilabete egon zen Melilla inguruan soldadu, eta 16 hilabetetik 15 soldadutzako harakin moduan igaro zituen.

18. Gabonetan, baimenarekin soldadutzatik etxera

- **Erref**: GER-002/021
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:58:48. **Bukatu**: 01:00:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Teniente koronelak galdetu zionean ea zerbait behar ote zuen, gabonetan etxera itzultzeko baimena nahiko lukeela erantzun zion, eta 50 egun igarotzera itzuli zen Gernikara. Gero, fraide bati egindako enkarguak zirela-eta, beste 40 egunetarako baimena eman zien, eta orduz gero ez zen itzuli soldadutzara.

19. Soldadutzako abenturak

- **Erref**: GER-002/022
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 01:00:41. **Bukatu**: 01:04:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadutzan ilea moztu zien. Gernikako festako zirela-eta mozkortu egin ziren kuadrillan, etxetik urrun egon arren ospatu nahi zutelako, eta bertakoren batekin izandako liskarra kontatzen du.

20. Soldadutzan euskaldunak harreman ona elkarren artean

- **Erref**: GER-002/023
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 01:04:11. **Bukatu**: 01:06:39

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Janari aldetik eskas ibili ziren soldadutzan. Euskaldunak ia denek zuten arduraren bat bertan, oso ondo moldatzen ziren euren artean, larunbatero taberna batean elkartzen ziren, eta izugarrizko parrandak egiten zituzten. Elkartzen zirenetan euskaraz aritzen ziren elkarrekin.

21. Elizaldeko erromeriak

- **Erref**: GER-002/024
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 01:06:39. **Bukatu**: 01:11:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Mendatan erromeria ederrak egiten ziren, Elizalde auzoan, inguruko herri eta auzoetatik jende ugari joaten zen Mendatara. Hasiera batean alkateak ez zuen uzten dantzarik egiten, baina alkatea aldatu orduko aldatu zen hori ere, apaizari bost axola zitzaion baltseoan aritzen ziren ala ez. Inguruko herri eta auzoetako ia denak ezagutzen ditu, harakin lanetarako ganadua erostera baserriz baserri joaten baitzen.

22. Mendatako jaiak eta jaietako jantziak

- **Erref**: GER-002/025
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 01:11:19. **Bukatu**: 01:13:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Erromeria egunean edo igandetan txukun jantzita irteten ziren: 'mil rayas' galtzak, zapatila zuriak, alkondara koadroduna, etab. Mendatan zortzi eguneko festak egiten zituzten, eta gauero egoten zen erromeria. Mutilek pezeta bat ordaindu behar izaten zuten dantzan egiteko, eta koloretako txapa bat ematen zieten, neskek dohainik egin zezaketen dantza.

23. Zahagi mutilak jaien arduradun

- **Erref**: GER-002/026
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 01:13:43. **Bukatu**: 01:14:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:
Zahagi-mutilek jaietako kontuez arduratu behar izaten zuten, udalak ere diruz laguntzen zuen, behin Albizeko kondeak ere egin zuen ekarpen ekonomikoren bat.

24. Albizeko kondea

- **Erref**: GER-002/027
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 01:14:46. **Bukatu**: 01:17:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Albizeko kondea madrildarra zen, Albizen lurrak zituelako deitzen zioten hala. Uda Albizen igarotzen zuen familiarekin. Bere bezeroa izan zen urteetan zehar, haragi asko erosten zion udan.

25. Galtzontzilo karrera Gernikako jaietan

- **Erref**: GER-002/028
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:17:06. **Bukatu**: 01:18:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Gernikako jaietan galtzontzilo karrera egiten zen, frontoitik hasita. Goizeko ordu biak edo hiruak aldera izaten zen. Neskak begira egoten ziren ondoan.

26. Tabako landareak baserrian

- **Erref**: GER-002/029
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 01:18:31. **Bukatu**: 01:22:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Soldadutzan hasi zen tabakoa erretzen, eta handik itzultzean puruak erretzen hasi zen, lau puru erretzen zituen egunean. Tabako landarea ekarri Gernikako plazatik eta baserrian landatzen zuten, udaberrian, abuztuan jaso, alanbreetan lehortzen jarri eta kutxilo batekin edo guraizeekin mozten zituzten orriak. Puruak eta zigarroak eurek egiten zituzten. Emakumeek ez zuten erretzen, baten batek agian.

27. Neska laguntzeak eta sagardogintza

- **Erref**: GER-002/030
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 01:22:16. **Bukatu**: 01:26:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Albizetik-eta joaten ziren neskak erromeriara Mendatara. Gero mutilek kuadrillan neskei etxera laguntzen zieten askotan, oinez. Astelehenetan astoan edo gurdian eramaten zituzten berdurak plazara, sagar ugari zuten baserrian, onena 'reineta' sagarra omen zen, ondoen saltzen zena ere bai. Sagardoa eta txakolina egiten zuten baserrian, tretzan, eta botilaratu aurreko prozesua kontatzen du. Sagar gaziekin egiten zen sagardoa, beste sagar mota batzuekin nahastuta. Auzolanean egiten zuten, familiakoen eta auzokoen artean.

28. Txakolina mahastietatik botiletara

- **Erref**: GER-002/031
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 01:26:21. **Bukatu**: 01:28:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:
Mahastiak ere izan zituzten baserrian, eta txakolina egiten zuten tretzan, sagardoa egitea baino errazagoa zen. Orduko txakolina oso garratza izaten zen, emakumeek ardorik ez, baina sagardoa eta txakolina edaten zuten.

29. Milizianoak baserriak errekisatu arren, auzolanean aurrera

- **Erref**: GER-002/032
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 01:28:02. **Bukatu**: 01:30:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Milizianoek auzoko etxe batzuek errekisatu eta ganadua eta tresneria ugari eraman zuten beraiekin. Aita inguruko baserrietako jendeari laguntzen ibiltzen zen, denen artean erosten zituzten behiak, ermandadearen bidez. Goserik ez zuten pasa, baserrian beti zegoen zerbait jateko, berdurak, taloa...

30. Garia eta artoa baserrian, errotara estraperloan

- **Erref**: GER-002/033
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 01:30:31. **Bukatu**: 01:33:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Ogia errazionamendukoa izaten zenez, taloa jaten zuten urdaiarekin, gosea engainatze aldera. Gari asko zuten baserrian, eta baita arto pixka bat ere. Inguruan hiru errota zituzten, gauez joan behar izaten zuten estraperloan, milizianek ikus ez zitzaten.

31. Sarramentara estraperloan

- **Erref**: GER-002/034
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 01:33:10. **Bukatu**: 01:36:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Aitarekin Sarramentara joaten zen goizeko hiruetan estraperloan. Txahalak gurdian jaitsi, eta kotxean bila zetozenek argiekin keinuak egiten zizkieten, jakiteko eurak zirela bila zetozenak. Estraperloa nonahi egiten zen, diru asko irabazten zen horrela, harrapatuz gero ordea, 1.000 pezetako isuna ordaindu behar izaten zen.

32. Auzolana eta elkartasuna herritarren artean

- **Erref**: GER-002/035
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 01:36:33. **Bukatu**: 01:37:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Lehen ez zegoen segururik baserrietan, herriak babesten zituen baserriak. Ermandadea ordaintzen zuten, eta erretako baserriek, ondasunak galdu zituztenek ermandadetik jasotzen zuten behar zutena, auzolanerako joera handia zegoen, auzokoen arteko elkartasuna handia zen.

33. Jaietan dantzaldiak eta idi-demak

- **Erref**: GER-002/036
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:37:31. **Bukatu**: 01:39:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Mendatako San Migel jaietan askotariko jolas eta dantzak izaten ziren: idi eta asto probak, baba zakuen altxatzea... Bertako eta kanpoko jendea ibiltzen zen horretan, eta diru asko jokatzen zen plazan. Gizon probak ere izaten ziren, bera ere ibilia da, 700 kiloko harria mugitu zuen 17 urterekin Gernikan.

34. Idi-demak

- **Erref**: GER-002/037
- **Iraupena**: 0:05:24. **Hasi**: 01:39:22. **Bukatu**: 01:44:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Frontoian diru gehiago jokatzen zen arren, idi-probatan ere diru asko jokatzen zen plazan. Idiei hanketan ferrak ipintzen zizkieten. Tranpa eta tongo ugari izaten ziren, epaileek harrapatuz gero deskalifikatzeko arriskua zegoelarik. Markina-Etxebarriko plazan zen onena idi-probatarako.

35. San Markos, harakinen eguna

- **Erref**: GER-002/038
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:44:46. **Bukatu**: 01:46:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
San Markos izaten zen harakinen eguna, apirilaren 25ean. Harategiak itxita, inguruko harakinak elkartu, bazkaldu eta parranda ederra egiten zuten elkarrekin. Gernikako hiltegia itxi zen arte mantendu zuten ohitura hori.

36. Medikuak eta dentistak Gernikan

- **Erref**: GER-002/039
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 01:46:48. **Bukatu**: 01:50:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Patxi Urkiaga zen Mendatako medikua, gerora Gernikara joan behar izaten zuten medikuarengana, Don Pako Alegria zen sasoi hartan Gernikako medikua. Hiru hilabetero ordaintzen zitzaion medikuari, bere aita ibilia zen auzoan dirua batzen medikuari emateko. Dentistarengana Gernikara joaten ziren, garai hartan dentista asko ziren Gernikan.

37. Lanbide eta sindikatuak Gernika eta inguruetan

- **Erref**: GER-002/040
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 01:50:03. **Bukatu**: 01:52:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Sindikatuena berak harategia jarri eta geroko kontua izan zen Mendatan, gerora aita izan zen Mendatako sindikatuko presidente bost urtez. Notarioak baziren Gernikan, jostunak gutxi ziren baina sastreak asko, bizarginak ere baziren.

38. Gernikako banda

- **Erref**: GER-002/041
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 01:52:56. **Bukatu**: 01:53:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Panderojoleak eta soinujoleak bai, baina bandarik ez zegoen Mendatan. Gernikan bai, banda handia zegoen, igandero pasealekuko kioskoan jotzen zuen bandak.

39. Bataio, jaunartze eta ezkontzak

- **Erref**: GER-002/042
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 01:53:58. **Bukatu**: 01:57:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Bataio eta jaunartzeak Andra Marin egiten zituzten. Umeak jaio eta bi edo hiru egunera bataiatzen ziren. Bera Mendatan ezkondu zen, Albizen, urdinez jantzita eta emaztea zuriz. Jende asko egon zen ezkontzan, bazkaltzera Gernikara joan zirelarik. Eztei-bidaian Madrilera eta Sevillara joan ziren, 15 egun igarotzera.

40. Lehenengo bainua itsasoan 13 urterekin, Sukarrietan

- **Erref**: GER-002/043
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 01:57:20. **Bukatu**: 01:59:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Txahalak hiltzera Bermeoko hiltegira zihoazela ikusi zuen lehen aldiz itsasoa. 13 urterekin bainatu zen lehenengo aldiz itsasoan, Sukarrietan, eskolatik joanda, igerian bazekiten, ordea, Mendatako errekan eta presan ikasita.

41. Guardia Zibilaren koartelera haragia eramatera

- **Erref**: GER-002/044
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 01:59:53. **Bukatu**: 02:04:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Gernikako guardia zibilekin izan zuen traturik, Mendatara idi-dematara joaten zirenetik ezagutzen zituen. Behin harategira azaldu ziren gauez, eta ea koartelera haragia eramango lukeen galdetu zioten, berak baietz, kapitainarekin elkartu zen egun batean eta handik aurrera egunero joaten zen koartelera haragia eramatera, eguneroko bezeroak ziren.

42. Igel jokoa eta baserriko baliabideak

- **Erref**: GER-002/046
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 02:05:47. **Bukatu**: 02:08:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Mendatan ez zegoen bolatokirik, Markinan bai, baita Santa Eufemian ere. Mendatan igel jokoan aritzen ziren lagunartean, txikitoa nork ordaindu jokatzen zuten. Argia eta ura beti izan dute etxean, garbitokia zuten arropak garbitzeko, ganaduentzat... bestela errekara eramaten zuten ganadua, etxe ondoan zuten-eta.

43. Letania inguruko hiru ermitatan

- **Erref**: GER-002/047
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 02:08:07. **Bukatu**: 02:09:00

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Inguruan San Juan, Santa Eufemia eta San Pedro ermitak zeuden. Lehen mezak izaten ziren bertan, baita letania ere. Apaizak urtean behin hiru ermitatan ematen zuen meza, koñaka, anisa eta gailetak banatzen zituzten eta erdi mozkortuta itzultzen ziren etxera.

44. Txerriak, idiak eta behiak

- **Erref**: GER-002/048
- **Iraupena**: 0:04:16. **Hasi**: 02:09:00. **Bukatu**: 02:13:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Txerriak hil eta gero, gatzetan mantentzen zuen haragia, gatz loditan. Auzokoen laguntza jasotzen zuen txahalak erditu behar zuen momentuan, behiak gaixotuz gero, ordea, albaitariak joan behar izaten zuen baserrira. Baztanga kasurik baldin balego, berrogeialdian egon behar, animalia zenbat hil ere egiten ziren. Idiak irendu egiten zituzten. Bera ez zen ehiza zalea, eskopeta bat oparitu zion lagun batek, eta lehengusu bati eman zion.

45. Idiei apatxak konpontzera ferrategira

- **Erref**: GER-002/049
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 02:13:16. **Bukatu**: 02:16:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Idi eta astoei apatxak konpondu behar izaten zitzaizkien, tenazekin, ferrategira eramaten zituzten horretarako. Ferrak ere jarri behar izaten zitzaizkien idiei, eta nola jartzen zitzaizkien kontatzen du Serapiok.

46. Basoko eta errekako animaliak

- **Erref**: GER-002/050
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 02:16:11. **Bukatu**: 02:20:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Natura » Fauna » Basoko animaliak
- Natura » Fauna » Errekakoak

Laburpena:
Behiei baba, garia, artoa, garagarra, zahia... ematen zieten jateko, lehen ez zegoen pentsu prestaturik. Behiek, ahuntzak, akerrak, eta abar, "orroie" egiten omen dute, zaldiak irrintzi, astoak arrantza, oiloak "karkaxie"... Lehen basoan erbiak eta txoriak izaten ziren asko, basurderik ez, azkonar, basakatu eta katamixar gutxi, errekan berriz apoak.

47. Gaztetako bihurrikeriak

- **Erref**: GER-002/051
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 02:20:14. **Bukatu**: 02:22:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Barrabaskeria asko egindakoa da gaztetan, eskean joandakoak ez zituzten bakean uzten. Behin igandea kartzelan pasa zuen lagun batekin, alkatearen aginduz, akuiluarekin izandako istorio bat zela-eta. Eskolatik ere ihes egin izan zuten, eta arropa denak zikinduta itzuli.

48. Abarkak eta txapinak

- **Erref**: GER-002/052
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 02:22:15. **Bukatu**: 02:24:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Narruzko abarkak izan zituen berak, aitak dotoreak zituen, zuriak kordel beltzekin, igandetarako. Osabak egin egiten zituen abarkak. Abarketak ere bazituen. Izebak lanazko txapinak egiten zituen, lodi-lodiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-31

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com